

ERABAKIA, 2021eko azaroaren 24koa, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearena, **MEDIKUNTZA ETA ERIZAIN TZA FAKULTATEA** Ikastetxe edo Zerbitzurako **F 1161 Ikastegiko teknikaria** lanpostua aldi baterako zerbitzu betekizunen bidez betetzeko deialdian parte hartzeko **ONARTUTAKO ETA BAZTERTUTAKO IZANGAIEN BEHIN BETIKO ZERRENDA** onartzeko dena.

Deialdia 2021eko azaroaren 5eko Erabakiaren bidez egin zen, UPV/EHUko gerenteak emandakoa.

ARAU APLIKAGARRIAK

- Akordioa, 2017ko uztailaren 18koa, AZPko funtzionarioaren plangintza batzordearena, AZPko funtzionarioei zerbitzuen eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzeko buruzkoa 2017ko irailaren 28an Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak berretsia (2018ko maiatzaren 21eko EHAA)..
- Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak 2021eko urtarrilaren 28an hartutako erabakia, errektorearen eskumenak eskuordetzeko eta gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko dena (2021eko otsailaren 12ko EHAA) .

Beraz, Gerentzia honek,

ERABAKI DU

Aipatutako deialdian onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda argitaratzea, UPV/EHUko web-orrian, Administrazio eta zerbitzuetako langileak. Hautaketa eta hornikuntza. Barne-deialdiak.

Erabaki honek administrazio bidea agortzen du, eta bere aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Gerentzia honi hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke zuzenean dagokien Administrazioarekiko Auzien Epaitegietan. Horretarako hilabete biko epea izango da, erabaki hau UPV/EHUko web orrian argitaratu eta biharamunean kontatzen hasita.

Leioan, 2021eko azaroaren 24an

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2021eko urtarrilaren 28ko erabakia (2021eko otsailaren 12ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria).

UPV/EHUko Gerentzia



Miren Lorea Bilbao Arteché

I. ERANSKINA

ONARTU ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ZERBITZU BETEKIZUNA - 21/11/5 (e)ko DEIALDIA

1900

F 1161

Ikastegiko teknikaria

Hor. 13

HE

3.09/09

MEDIKUNTZA ETA ERIZAINNTZA FAKULTATEA

(Gurakoei dagokien lehentasun-taldearen arabera ordenatua)

a) Deitutako lanpostuaren talde eta eskala bereko karreradun funtzionarioak.

lehentasuna

EZ DAGO ATAL HONETAKO GURAKORIK

b) Deitutako lanpostuaren talde bereko baina eskala desberdineko karreradun funtzionarioak

lehentasuna

EZ DAGO ATAL HONETAKO GURAKORIK

c) Deitutako lanpostuaren behegoko hurrengo talde eta eskalako karreradun funtzionarioak.

lehentasuna

EZ DAGO ATAL HONETAKO GURAKORIK

* BAZTERTZEKO ARRAZOIAK: 1: Epez kanpo aurkeztutako eskabidea; 2: Deialdian onartzen diren talde edo eskalen batean karreradun funtzionarioa ez izatea; 3: Lanpostua betetzeko eskatutako titulazioa ez edukitzea; 4: Eskatutako hizkuntza-eskakizuna eskakizuna ez edukitzea; 5: UPV/EHuko funtzionarioa ez izatea; 6: Deialdia argitaratu aurreko urtebetean, prozedura honen bidez, zerbitzu betekizunetarako izendapena izatea; 7. Eskatzen den hizkuntza jakitearen ziurtagiria ez aurkeztea. 8. Erregistratu gabeko eskabidea. 9. Deialdiari uko egitea. 10: Beste zerbitzu betekizuneko deialdian esleipendua.